



Trebakuntza 2008/07: LABURTZAPENAK (I): SIGLAK

Udal idazki askotan laburtzapenak gaizki erabili ohi dira. Gaurkoan, laburtzapen mota bati buruz arituko gara: siglei buruz. Siglek ezaugarri hauek dituzte:

Erabilera: erakundeak, instituzioak, elkarteak... izendatzeko erabiltzen ditugu.

Idazkera: larriz idazten dira, eta ez dute punturik hartzen ez letren artean, ez bukaeran.

Deklinazioa: izen bereziak bezala deklinatzen dira; hau da, ez dute artikulurik hartzen.

OHARRA: Asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * ***EB**eko herrialdeek ez dute nahi ikertzaile gazteak Amerikara joaterik.*
2. * *Ikasleen %86k lortu dute azken ikasturtean **DBH**eko titulua **EAE**an.*
3. * ***AEK**k eta **IKA**-k Nafarroako Gobernuak euskaltegiei zuzendutako diru laguntzak murriztu izana salatu zuten atzo.*
4. * *Oposizio lehiaketetan jendea baztertze jokabide ezegokia erabili duela egotzi dio **ELA**-k **BBK**-ri.*
5. * ***UPN**n eta **CDN**n erakusketa debekatzearen aldekoak dira gehienak.*
6. * ***EA**-k eta **EAJ**-k gaur aztertuko dute Batasunaren programa.*
7. * ***LAB**k, **ELA**k eta **EHNE**ek hainbat bilera egingo dituzte.*

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org



AZALPEN OROKORRA

Sigla batzuk osorik irakurtzen dira, eta beste batzuk letraz letra. Beraz, sigla **nola ahoskatu, hala deklinatzen** dira:

- ELA. Nola irakurtzen da? **e-la**. Beraz, **ELAko...**
- UPNA. Nola irakurtzen da? **up-na**. Beraz, **UPNAko...**

Adibide gehiago: IVAP (i-vap), PSOE (pe-soe), UGT (u-ge-te), LAB (lab), UPN (u-pe-ene)...

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. **EB sigla** honela irakurtzen da: **e-be**. Hartara, honela idatzi behar da esaldia:

Ad. **EBko** herrialdeek ez dute nahi ikertzaile gazteak Amerikara joaterik.

2. Esaldi honetan bi gauza nabarmendu behar dira:

- a) Batetik, **DBH sigla** honela irakurtzen da: **de-be-hatxe**. Beraz, forma zuzena hau da: DBHko.
- b) Bestetik, **siglak izen propioak bezala deklinatzen** dira. Beraz, ez dute artikulurik hartzen (-a gabe).

Ad. Ikasleen %86k lortu dute azken ikasturtean **DBHko** titulua **EAEn**.

3. Oro har, siglak deklinatzean ez da marratxorik jartzen. Nolanahi ere, **-k**, **-n** edo **-r** letrarekin bukatzen diren siglak **deklinazioko -k, -n edo -r hizkiekin lotzean, marra erabiltzen da: BBK-k, UPN-n, RPR-ren...**

Ad. **AEK-k** eta **IKAK** Nafarroako Gobernuak euskaltegiei zuzendutako diru laguntzak murriztu izana salatu zuten atzo.

4. Honako kasu honetan, **ez dago arrazoirik marratxoa jartzeko:**

Ad. Oposizio lehiaketetan jendea baztertzeko jokabide ezegokia erabili duela egotzi dio **ELAk BBKri**.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org



5. Honako kasu honetan, hitzaren azken letra eta deklinabidearena berak direnez, marratxoa jarri behar da.

Ad. **UPN-n** eta **CDN-n** erakusketa debekatzearen aldekoak dira gehienak.

6. Honako kasu honetan, **ez dago arrazoirik marratxoa jartzeko:**

Ad. **EAK** eta **EAJk** gaur aztertuko dute Batasunaren programa.

7. Esaldi honetako siglak honela irakurtzen dira: **lab, e-la, e-ne.**

Ad. **LABek, ELAk** eta **EHNEk** hainbat bilera egingo dituzte.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariek:

- Telefonoz: 943260372 (Imanol) eta 946279195 (Iratxe)
- Posta elektronikoz: gipuzkoa2@uema.org (Imanol) eta bizkaia1@uema.org (Iratxe)

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org